



Gazte Festak Urnietan, garai batean bezala

Ekitaldiz beterik dator asteburua. Ostiral arratsaldean abiatuko da, eta igande iluntzera arte ez da atsedenaldirako tarte handirik izango / 2-5

Zegama-Aizkorri, urteko hitzordua korrikalarientzat

Mikel Legarreta, Unai Ezeiza zein Ainhoa Jauregi urnietarrak eta Oier Escudero eta Ainara Gurrutxaga andoaindarrak igandeko irteeran izango dira / 10-11



Ligan nagusi izan eta, igoera ziurtatu ondoren, Kopako finala irabazi zuten aurreko igandean / 12



Urkik dantza erakustaldia eskainiko du Bastero Kulturgunean / 15



"La Sapa de los Aperribay" liburua aurkeztu dute, Andoaingo enpresa ardatz hartuta / 8-9

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA 5€



ERREMONTARI
Sagardoaren biopelketa

MAIATZAK 30 ASTELEHENA | 18:00-TATIK AURRERA

URRIZA · ZUBIRI vs ANSA II · JUANENEA · SETIEN


GOIKOETXEA V · BARRENETXEA IV vs EZKURRA II · ZALDUA I



ORIA MENDI | ERREMONTEA BIZIRIK



AIURRI



Orona



sukia

POSTONTZIA

POXTA ZAHAR URNIETA

'Gazte gera gazte, ta ezkaude konforme'

Badatoz Gazte Festak. Bi urteren ondoren, azkenean. Maldan gora tokatu zaigu bidea, zomorroak eta (batez ere) horri aurre egiteko neurriek gazteen bizitzan eragin zuzena bezain kaltegarria izan duelako. Jo-mugan egon gara, egoeraren errudun eta erantzule egin gaituzte sarri. Beste gauza askoren artean, kolpetik eten du gure aisialdia pandemiak, elkar harremantzeko uneak eta espazioak murriztu zaizkigu.

Horren ondorioz, Poxta Zaharreko kideoi ez zaigu batere erraza egin berriro ere gure dinamika martxan jartzea. Bi urteko parentesi honek ez digu onurarik ekarri hainbat eta hainbat esparrutan. Alde batetik, gaitasun ekonomiko eskasak gure ekintzak mugatzera eramane gaitu, baita egitarauak osatzeko buruhausteak izatera ere. Beste alde batetik, prozesu burokratikoek oso modu agerikoan mantsotu dute gure jarduna. Baina, batez ere, oso kezkatuta gaude taldeak bizi duen belaunaldi krisiarekin, nekez ikusten baitugu gurera batzeko prest dagoen urnietar gazterik. Beharbada, elkar ezagutzeko, konfiantza sustatzeko eta herri izaera sendotzeko

espazio bat izango bagenu, urnietar gazte gehiagok sentituko lukete premia eta nahia Urnietari zerbait emateko. Kritikak kritika, ditugun baliabideekin egiten diogu ekarpena herriari. Baina jasotako erantzuna ez da antolakuntza-lanetan ematen dugun ahaleginaren besteko proportzionala. Bolondres gutxi batzuen lanak ekartzen du guztien gozamenari. Urnietan. Herriko festak ez dira guztia eskura, mamitan jasotzen diren zerbait. Herriko festek jendea behar dute, parte-hartzea eta motibazioa, herriak herri izaten jarraitu dezan (eta ez Donostiako auzo bat).

Gu kezkatzen gaituenak, zu ere, irakurle, kezkatu beharko zintuzke. Zure parte-hartzerik ez bada, guztiok geldituko baikara festarik gabe. Poxta Zaharreko ateak irekita daude gogoz dabilen edonorentzat. Guztiok aterako gara irabazten.

Kalean ikusiko dugu elkar!

**POXTA ZAHARREKO
ATEAK IREKITA
DAUDE GOGOZ
DABILEN
EDONORENTZAT**

“Elkarteeek egiten duten lanagatik ospatzen dira festak”

LEIRE IBARBIA EGAPE DANTZA TALDEA

Bolondres gisa aritzen dira kideak, eta udaberrian hasita lan eta lan ari dira. Gizarte eragileen ekarpena balioan jarri nahi izan du Egape dantza taldeko eragileak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Azken bi urte hauetan nola ikusi dituzue haurrak eta gazteak? Jendaurreko emanaldirik gabe, motibazioa nabarmen jaitsi al da?

Motibazioa galduta ikusi ditugu. Bi urteotan, ekitaldi txikiak egin ditugu, musukoarekin eta bete beharreko neurriak errespetatuta. Aurten, izen-ematea nabarmenki jaitsi da, alegia, askoz dantzari gutxiago etorri dira gurera. Ez dakigu beldurragatik ote den edo motibazio ezak jota, baina pena bat da. Izan ere, nahiz eta lan handia eskatu, oso gustuko dute haurrek plazan dantzatzea, Sarobeko emanaldia egitea eta abar. Beti bizi ohi dute oholtzara igo aurreko tentsioa, baina, egun, are urduria- go ipintzen dira, praktika faltagatik.

Guztiontzat izan da zaila pandemia, baina, batez ere, nire ustez, nerabezaroan izan du eragin gehien, baita adineko jendearengan ere. Gauzak egi-teari utzi diote gazteek, eta, orain, kosta egiten da martxa hartzen, lotsa ere tarteko dago...

Betiko jarduna berreskuratzeko bide horretan, Dantzari Txiki Eguna izango da larunbatean.

155 dantzari biltzen dituen ekimena da, lau urte dituzten txiki-tatik hasi eta batxilergoan dauden ikasleak bitarte. Helduok ere dantzatzeko dugu, orain lau urtetik hona (lehen, soilik, azken emanaldia dantzatzeko genuen). Helduek hartuko dute Etxeberri plaza. San Juan plazan, lau eta bost urtekoek nahiz Lehen Hezikuntzako lehen mailakoek dantzatzeko dute; eta, adin-tarte horretatik aurrera, Idiazabal kalean izango dira. Guneak prestatu ditugu, eta, horietako bakoitzean, txistuarien laguntzaz, dantza egingo dute. Emanaldi nagusia, guztiok batuta, Plazido Muxika plazan egingo dugu, eguerdiko 12:30ean. Bi pieza egingo dituzte guztiek batera,



Leire Ibarbia. AIURRI

emanaldiari hasiera emateko. Jarraian, talde bakoitzak bere erakustaldia egingo du, eta, azkenik, berriro ere bi pieza dantzatzeko dituzte guztiak batuta, borobiltzeko.

Aurten, izango al da gonbidaturik? Usurbiletik datoz 30 bat dantzari, 8-12 urte bitartekoak. Maia-tzaren 7an joan ginen gu hara (LH6), eta beraiek datoz, orain, bueltan. Egape Ikastolan egingo diegu harrera, goizeko 11:00etan. Idiazabal kalean, gune bat izango dute eta Plazido Muxikako

amaiera-ekitaldiko azken bi dantzak ere EDTko kideekin batera egingo dituzte.

Ondoren, ohiturari jarraiki, Egape Ikastolara joango gara, Usurbileko dantzariak eta LH 4tik aurrerako ikasleak.

Zenbat lagun behar dituzte guztira horrelako ekimen jendetsua antolatzeko?

Aurten, gutxiago gaude, elkartean urte asko zeraman jendeak utzi egin duelako. Uste duguna baino lan handiagoa dago egiteko. Gainera, udaberri partean izan ohi ditugu hitzordu gehien. Bolondres gisa aritzen gara kideak eta ez da erraza izaten. Finean, elkarteeek egiten duten lanagatik ospatzen dira festak.

Azken boladan, dantzari-kopurua jaitsi bada ere, indarrean jarraitzen al du euskal dantzak Urnietan?

Bai, jakina. Dantzak asko mugitzen du herria. Ia martxa hartzen duen berriro, eta herritar gehiago batzen diren gurera, bai dantzatzeko, bai antolatzeko!

**"IA HERRITAR
GEHIAGO BATZEN
DIREN GURERA,
BAI DANTZATZEKO,
BAI ANTOLATZEKO"**



Egape dantza taldeko kideak San Juan plazan. AIURRI

Hawaiar kutsuko afaria

Poxta Zahar elkarteak pandemia aurreko urteetan finkatu zen hitzordua berreskuratu du. Mozorro festa eta afariaren bitartez, giro ederrean murgiltzen dira urnietar gazte ugari. Aurtengo afarirako alkandora koloredunak eta loratuak eskuratu beharko dira

Erredakzioa URNIETA

Azken hilabeteetan garai bateko gizarte bizitza berreskuratzen ari da Posta Zahar, eta, aurtengo Gazte Afarian, ehunka lagun elkartuko dira. Txartelak azkar batean saldu dira. Hori, zinez, albiste ona da. Errepasa ditzagun azken gazte afariak. 2016ko erronka bikoitza izan zen. Mozorroaz gain, lurralde bateko janaria aurkeztu behar zen lehiaketara. Epaimahaiak hogei plater ezberdinen artean erabaki behar izan zuen. Lanak izan zituzten, baina azkenean lehen saria Italia aldera joan zen

2017ko Gazte Afaria super heroien bilgune bilakatu zen. Heroi gehienak ezagunak ziren, baina ezustea Urnietan bertan sortutako heroiek eman zuten: Supermarimoreek, hain zuzen.

2018an euskal artistak gogoan hartzeko afaria izan zen. Txikiteroak agertu ziren, baina baita pailazoak ere. 2019an tribu urbanoei buruzko afaria izan zen.

Tribuak tribu, helburua festa polita egitea da gazteen arteko giro ederrean.



2017ko Gazte Afaria super heroien bilgune bilakatu zen. AIURRI



Pailazoz mozzorrotutako gazte koadrila 2018ko Gazte Festetan. AIURRI

Gazte Festak Urnietan, ostiralean hasi eta iganderarte

Adin guztiei zabaldutako egitaraua izango da. Ostiraleko afaria eta larunbata, ekitaldi nagusiak gazteei begira

Erredakzioa URNIETA

Ekitaldiz beteriko asteburua izango da maiatzeko azkena.

Maiatzak 27, ostirala

17:00-18:30 Bubble saioa Egapen, Gaztelekuak antolatuta.

18:00-20:00 Etxeberri Plazan, Elvi sabeliztuna. Ondoren kontzertua: Sara Grajal & Pj Kahuna. Etxeberri Plazako Auzokideen elkarteak edari eta musika postua jarriko du.

19:00 Kantazaun Etxeberri Plazatik.

19:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira Plazido Muxika plazatik, Bosko Anitz txarangarekin.

20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa, Jai Batzordeko ordezkarien eskutik. Ondoren, Egape dantza taldearen emanaldia.

21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira, San Joan plazatik.

21:00 Afaria: Gau Hawaiarra.

23:00-02:00 Alargun Beltzak elektrotxarangaren emanaldia.

Maiatzak 28, larunbata

10:00 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00-12:30 “XVI. Urnietan Dantzan” jaialdia. Saioak Idiazabal kalea, Etxeberri plaza eta beste hainbat tokitan. Dantzari txikien saioa San Juan plazan.

12:30 Egape DTren emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan.

12:00 Poteoa, Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00 Herri bazkaria Idiazabal kalean.

16:30-17:30 Eskolarteko txirringularitza proba Idiazabal kalean.

17:00 III. Urnieta Warrior oztopo proba San Joan plazan.

17:30 RocKalean elektrotxaranga, Idiazabal Kaletik.

22:30-03:00 DJak Idiazabal kalean.

23:30 Extopa, Estoparen omezezko kontzertua.

Maiatzak 29, igandea

09:00-10:00 Antonio Gabirondo Memoriala Oiarzungo tiro zelaian, Santa Kruz Elkar- teak antolatuta.

10:00 Diana.

11:00-13:00 Ekojolasak Egapen.

11:00-13:30 Antzara Jokoa Egapen.

12:30 San Joan Plazan Txanbolin emanaldia.

16:00-18:00 Ekojolasak Egapen. Puzgarriak eta jokoak.

17:00-21:00 Photocall-a eta festa- txoa San Juan plazan.

17:00-18:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira San Joan plazatik.

18:00-20:00 Dantzaldia zuzeneko musikarekin Plazido Muxika plazan.

18:30 San Juan plazan Kale Antzerkia: “Panoli Kabareta”.

19:30 Super Zumba.

21:00 Jaien amaiera.

Trafikoa etenda Idiazabal kalean Larunbatean 11:00etan hasita eta igande goizalderarte.



Urnietako
udala

Kontzertuak asteburu honetan



Alargun Beltzak, Santa Krutz jaietan. AIURRI

Alargun Beltzak Ikuslegoa musika emanaldira gerturatzen ez denean, musikari askok ikuslegoarengana gerturatzeko talde ibiltariak sortu dituzte. Donostia eta Pasaia aldetik dator emakumez osaturiko Alargun Beltzak taldea.



Rockalean kalejiran aritzen dira, rock doinuak eskainiz. ROCKALEAN

Rockalean AC/DC lau haizetara abestu eta dantzatzeko prest? AC/DC zer den ez dakizula? Gazteegia zara, beraz. Zoaz Googlera edo gurasoei galdetzerara. Eta bestela ager zaitez larunbat arratsaldean Rockalean taldeak eskainiko duen kalejirara.



Extopa udaberri honetan eskainitako emanaldian. EXTOPA

Extopa Extremadurako taldea Urnietara hurbilduko da, Katalunian sorburu duen Extopa talde ezagunaren bertsioak eskaintzera. Beren aurkezpen-txartela: "Muñoz Anaïen kantu aukeraketa zaindua, Estoparen arrakasta handi guztiak mimoz errepasatzen dituen".

“Kalean euskara entzun nahi dugu; nola egin hori? Kantuan”

KANTAZAUN KANTUZALEAK

Kanta herrikoiez gain, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi edota Pier Paul Berzaitz abeslarien piezak abestuko dituzte, baita Urnietaren ereserkia ere

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Hiru urteren ostean, itzuli dira Urnietako Gazte Festak. Zuek ere kalera aterako zarete.

Lehen aldia da, Kantazaun gisa, festetan parte hartzen duguna. 2019. urteko udazkenean hasi ginen, eta, hurrengo udaberrian, pandemia etorri zen. Hilabete bakoitzeko azken ostiralean biltzen gara, iluntzeko 19:00ak aldera, eta herrian barrena itzulia egiten dugu. Egun, 25 bat kidek hartzen dugu parte. Horregatik aterako gara datorren honetan ere, maiatzeko azken ostirala delako. Etxeberri plazatik irten eta herriko kaleetan zehar ibiliko gara, tabernetan geldialdia eginda.

Zein belaunaldiko jendea batzen zarete?

Adinekoak gara guztiak, 60 urtetik gorako herritarrak, oro

har. Liburuxka egiterakoan, zein abesti sartu eztabaidatzen, gazteen martxa ezberdina darabagula ohartu gara. Oraingo liburuxka gure inguruko, garai-ko abestiekin osatzea erabaki dugu.

Egon izan gara, inoiz, modu ez formalean, Guria taberna alboan abesten, eta gerturatu izan dira haurrak beren gurasoei; ondorioz, beren doinuak ere abesten ditugu horrelakoetan. **Zein eskaintza egiten duzue kantuz?** Kanta herrikoiez gain, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Pier Paul Berzaitz bezalako iparraldeko abeslariak ditugu gurean, baita Urnietaren ereserkia ere.

Ahotsarekin batera, ba al daukazue musika-instrumenturik bidelagun?

Inoiz atera gara Txanbolinekoei batera. Esku-soinuarekin

ibiltzen da Fermin, eta bafle txiki bat ere badugu. Baina, normalean, bakarrik aritzen gara, *a capella*. Ez da inongo asmorik perfekziora jotzea; kaleko ekintza bat da, gozatzeko egina.

Aurrera begira, Urnietan, kantuan, aritzeaz gain, beharbada, bestelako ekintzak antolatuko ditugu Sanmielak aldera.

Kantu birek oraindik ere indarra al daukate herriko festetan?

Indarra hartzen ari den dinamika da kantu-bira. Inguruko herrietan ere badira taldeak, Usurbilen, Hernanin zein Donostian, esate baterako. Kalean euskara entzun nahi dugu, eta, nola egin hori? Bada, gure, kasuan, kantuan. Herriko kaleak euskaldundu behar ditugu, kantuz, hitz eginez, edo ahal den moduan.



Kantazaun taldeko kideak, aste honetan bertan ateratako argazkian. AIURRI

“Ilusio handiz dago Etxeberri auzoa festak ospatzeko”

ESTELA CUEVAS ETXEBERRI ELKARTEA

Orain urte batzuk sortu zen auzo elkarte Etxeberri plaza inguruko giroa sustatzeko. Urteko data seinalatuetan jarduerak antolatzen dituzte, baita Gazte Festetan ere

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Zer nolako giroa, animoa ikusten duzue auzoan?

Gainerako elkarten zein Udaren partetik gogo handia nabari da, eta ilusio handiz dago gure auzoa festak ospatzeko, noski. Eguraldiaren arabera izango dira gure ekintzak, txarra eginez gero, aterpeak okupatuta daudelako. Atera, aterako gara, eta euria egiten badu, moldatuko gara.

Orain urte batzuk sortu zenuten elkarte. Eraginik izan al duzue Etxeberri plazaren bueltan biltzen den giroan?

Izugarri, baita bertako merkataritza ere. Jai-giroa herriko beste leku batzuetan zegoen lehen. Hala, eragina izan dugu auzoaren giroan, lauzpabost hitzordu egiten ditugulako urtean. Udalak, bere aldetik, ahal-egina egin du gure plazan ere ekintzak antolatzeko. Makina bat jende biltzen da, gainera, plaza honetan.

Jaien antolakuntzan, ezer botatzen al duzue faltan?

Bai, beharbada, Urnietako Udaren partetik aitortza apur bat handiagoa egitea herriko elkar-



Estela Cuevas, Etxeberri plazan. AIURRI

teei, eta guk antolatutako ekintzetara maizago etortzea. Finean, bultzada behar dugu, bolondresak garelako.

Herritarrei dagokionez, gaudenarekin ongi gaude; dena dela, beti animatzen dugu jendea gurrera etortzeko. Hasieran kosta egiten da antolakuntza lanetan hastea, baina berehala hartzen da berriro martxa. Gainera, na-

bari da bi urte egon garela gel-dirik.

Sanmielei begira ere antolakuntza-lanetan egotea aurreikusten al duzue?

Bai, jakina. Etxeberriko jaiak izango dira iraileko bigarren asteburuan, lehenik, eta Sanmieletan parte hartuko dugu. Urte amaiera aldera ere hainbat ekintza antolatu dugu.

Haur eta gazteei begirako hitzorduak



Urnietako erraldoiak, aurreko urteetako jaien hasieran. AIURRI

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Txarangarekin batera jaietako hasiera ematen dio Erraldoi eta Buruhandien konpartsak. Kalejiran hurbilduko dira ostiral arratsaldean San Juan plazara, haur eta gaztearen artean zirrara berezia eraginez.



2018ko edizioko argazkia. AIURRI

Lasterketa Giroaz gozatzen ari garen bitartean, kimu berrien pedalkadak ikusteko aukera izango da Idiazabal kalean. Andoaingo Txirrindulari Eskolak kudeatuta, Gipuzkoako neska-mutilentzat plaza bikaina da.



Etxeberri plazan auzotar mugimendua antolatu da, eta txalotzeko moduko ekimena erakusten ari dira. AIURRI



Naturak emandako elementuak jostagai bilakatuko dira. IREKIA

Eko jolasak Puzgarriak eta jolasak iragarri dituzte iganderako. Egape Ikastolako jolastoki estalian, goizez eta arratsaldean, naturak emandako elementuak jostagai bilakatuko dira. Ingurumenaren aldeko kontzientzia sakontzea helburu dute.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EUSKARALDIA ANDOAIN, URNIETA

Entitateen parte hartzea Euskaraldian

Euskaraz lasai aritzeko guneak sortzeko deia egin diete era guztietako entitateei Euskaraldiaren antolatzaileek. Hirugarren edizioak, berriro ere, ariguneak izango ditu protagonista, belarriprest eta ahobiziek batera. 2020an egindako bigarren edizioan bezala, entitateek parte hartzeko aukera izango dute eta berauen funtzio nagusia euskaraz lasai aritzeko guneak sortzea izango da. Pandemia betean milaka entitatek ariguneak sortu ondoren, euskararentzako espazio berriak sortu eta ariguneak areagotzeko helburua dute, aurtan, Euskaraldiaren sustatzaileek. Proposamena enpresa, erakunde, elkarte, fundazio, klub, talde eta era guztietako entitate antolatuei luzatu zaie, beste behin ere.

Euskaraldiaren bigarren edizioan, ariguneak sortu eta izena eman zuten entitateek beraien parte hartzea berretsi beharko dute **ariguneak.euskaraldia.eus/** webgunean izena emanez; lehenengoz izena emango dutenek ere helbide bera erabili ahal izango dute izena eman eta arigune-kopurua zehazteko. Aurtan izen-emate prozesua erraztu dutela azpimarratu dute antolatzaileek eta aurretik prozesua egin dutenek ere erraz berretsi ahal izango dutela parte hartzea.

**EUSKARALDIA
AZAROAREN 18AN
HASI ETA
ABENDUAREN 2AN
AMAITUKO DA**

Ariguneek hizkuntza ohituren aldaketan eta euskarazko praktika linguistikoen areagotzean duten garrantzia azpimarratu dute Euskaraldiaren antolaketan parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak. Euskara erabiltzeko gune babestuak izateak erabilera errazten duela nabarmendu da aurreko edizioetako balorazio eta ikerketetan. Horregatik, ariguneak sortu, hedatu eta identifikatzen jarraitzea lehentasuna izango da Euskaraldian.

2020an egin zen Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartu zuten entitateen artean esperientzia eredugarriak egon zirela azaldu dute ekimenaren sustatzaileak. Covid19-aren eraginez baldintzak errazak

izan ez arren, hainbat erakunde, enpresa eta elkartek ariguneak sortu eta urrats garrantzitsuak eman zituzten. Aurtengo edizioan esperientzia horiek eta hainbat entitatek izandako lorpenak beste batzuentzat baliagarri izan daitezkeela azaldu dute. Ildo horretan, esperientzia horiek zabaltzeko ahalegina egingo da Euskaraldiaren koordinazio mahaitik.

Euskaraldia urrats eta lorpen ugariaren gehiketa izan da aurreko edizioetan. Hirugarren edizioan ere

**IRAILAREN 28TIK
AURRERA AHOBIZI
EDO BELARRIPEST
ARITZKO EPEA
ZABALDUKO DA**

proposamen hori egingo zaie parte hartuko duten entitate eta herritarrei: euskararen erabilera areagotu eta hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko erronka konkrituak jar diezazkietela beraien buruei. Erronka guzti horien baturatik gizartean aldaketa eragitea da antolatzaileen helburua, hizkuntza praktikatan eragitea.

Azkenik, Euskaraldia sei hilabete barru egingo dela gogoratu du ekimenaren koordinatzaileak: 2022ko azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2an amaituko da hirugarren edizioa.

Era berean, herritar norbanakoek irailaren 28tik aurrera ahobizi edo belarripest roletan izena emateko edo parte hartzea berresteko aukera izango dute.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

Zumeatarra elkartearen urteurreneko ekitaldia

Andoaingo elkarte ezaguna bi urteko atzerapenarekin egiten ari da 50. urteurreneko ospakizun-sorta. Santa Krutz jaietako pregoia bota zuten apirilaren 29an eta aurreko larunbatean Udal ordezkariekin eta Andoaingo gainerako elkarte gastronomikoen ekitaldia antolatu zuten. Taldeko argazkia atera zuten ondoren, elkartearen kanpoaldean.



ZUMEATARRA

GORA ETA BEHERA



Arruti gozotegikoen eskuzabaltasuna Gravel probarekin

Asteburutan goizeko 08:00tan irekitzen ditu ateak Zumea kaleko Arruti gozotegiak. Gravel irteera dela eta, goizeko 04:30ean zabaldu zuten negozioa korrikalariei eta antolatzaileei martxan jartzeko gosari bana eskaintzeko. Eskuzabaltasun handia behar da ordu txikietan negozioa irribarre batez zabaltzeko.



Sonia Murillo Arruti gozotegian goizean goiz lanean, eta irribarre ahoan. AIURRI



Korrikalariak ekiteko prest ziren, Arruti gozotegian kafea hartu eta gero. Eskuineko irudian, antolatzaile eta laguntzaile taldea. AIURRI



TOKIKO MERKATARITZA



Mari Jose Izagirre zinegotzia eta Maite Ramos Salkineko presidentea. UDALA

Andoaingo Udalaren eta Salkin elkartearen arteko hitzarmena

Ekainean eta abenduan erosketak sustatzeko bono kanpaina bana iragarri dute

Erredakzioa ANDOAIN

Izagirre zinegotziaren beraren hitzetan, "Koronabirusaren osasun-krisiak areagotu egin ditu merkataritzaren, ostalaritzaren eta tokiko-zerbitzuen sektorearen biziraupenerako zailtasunak, eta testuinguru horretan, Udalak eta Salkinek beharrezkotzat jo dute saltoki txikiak eta ostalaritza babestea eta indartzea. Hitzarmen honen bidez, Udalaren beraren eta elkartearen arteko harremanak egonkorragoak izatea bermatzen da".

'HAN EDO HEMEN, EROSI ANDOAINEN' EROSKETA BONOAK

Bonuen bi kanpaina berri egingo dira 2022an. Lehenengo kanpaina ekainean egingo da, eta 50 euroko balioa duten 2.000 bonu banatuko dira Salkinen lokalean, 25 euroren truke. Bigarren kanpaina abenduan egingo da, hain zuzen ere, Gabonetan, tokiko kontsumoa sustatzeko. Ekimenak 100.000 euroko zuzeneko gastua aktibatuko du herriko denda, taberna eta jate-txeetan.



Liburua aurkeztu duen kolektiboak aurkezpena egin zuen Koldo Mitxelena. AIURRI

Sapa eta Aperribay familia ikertzen dituen liburua

"La Sapa de los Aperribay. La Guerra Empieza Aquí" liburua kaleratu du AntimilitaristakEH kolektiboak. Begiak Andoaingo enpresan jarrita, "gerrarako euskal industriaren funtzionamendua biluztu" nahi dutela adierazi dute egileek

Xabier Lasa ANDOAIN

Euskal Herriko hamaika taldek osatzen dute AntimilitaristakEH kolektiboa: Armiarma Talde Feminista Antimilitarista, Bake-ekintza Antimilitarista, Barde-nas Libres, Bilboko KEM-MOC, Emakumeok Gerraren Aurka, Gasteizkoak, Gerrarik Ez Eibar, Jaizkibel Militarrek Gabe, Ka-kitzat, Iruñeko KEM-MOC/Al-ternativa Antimilitarista, eta, La Guerra Empieza Aquí/Gerra Hemen Hasten Da. Liburua Donostiako Koldo Mitxelena kulturegunean eta Kaxilda liburutegian aurkeztu zuten, maia-

tzaren 21ean. Bi ekitaldietan kolektiboko Patxi Asparrenek eta Antonio Escalantek hartu zuten hitza.

Zergatik Sapa aztergai?

Aurkezpen ekitaldietan esan zuten, liburua irakurtzera animatzen den irakurleak, atalez atal, "SAParen ekoizpena, esportazioak, jasotako diru-laguntzak, enpresaburuen eta politikarien arteko harremanak eta ekonomikoki mantendu ahal izateko erabilitako bitartekoak eta kasu arraroak" aurkituko ditu. Egileek adierazi zuten, z-

Euskal Herrian, egun, ehun bat enpresa daude armagintzara lotuak. Hortaz, zergatik ikertu espreski Sapa? Aitortu zuten hainbat arrazoi pilatu zaizkiela horretako.

"Euskal industria militarren barne-muinetan sartu nahi izan dugu, eta guztiak ordezkari zitzaizkeen SAPA enpresa hautatu genuen, besteak beste, estatuko zaharrenetakoa delako, eta Euskal Herriko sektoreko ehun enpresetatik bakarra delako ekoizpen guztia militarismora bideratzen duena. Gainera, SAPA pittin bat ikertzen hasita, be-

rehala sortzen zaizu galdera, misterioz bete: hots, nazioarteko heriotzaren merkatarien unitertso beldurgarri horretan, non, handiak txikiak irensten dituzten, nola da posible bizi-irauteaz gain, hazten joatea gaitasun finantzario txikia daukan enpresa bat? Behin galdera hori eginda, ezinbestean, gogoa pizten zaizu sakontzeko zeintzuk diren bere estrategiak, zer nolako influentziak erabiltzen dituen..."

Behin azter-lanari ekingina, agudo, aho zabalik geratu zirela gehitu zuten egileek, batik bat, ohartzean SAPAk zer nolako harremanak -pribilegiozkoak- dauzkan botere handiekin eta era eta kolore guztietako erakunde publikoekin. "Eta hori, kontuan izanda gure ikerketa ez dela iritsi guztia jakitera, zati bakar bat baizik ez. Aperribay familia kontziente da daukan botereaz, badaki zenbateko bakesa eta inpunitatea eskaintzen zaion, eta, nahi duena lortzeko orduan, tarteka, berdin zaio manerak ez zaintzea eta zabarkari jokatzea".

Informazioa, publikoa

Egileek ziurtatu zuten soilik publikoa den informazioaz baliatu direla, "ez dugu espioitza lanik egin, edo ezkutuko elkarrizketarik egin. Den-dena informazio

publikoa da, eskura dagoena; informazio guztiaren zenbait zati medio digitaletan argitaratu da, baina ez dute oihartzunik eduki".

SAPari buruzko zenbait datu

Liburuak, batik bat, harrobien sektoretik zetorren Joaquin Aperribay Elosua Debako enpresariak SAPA 1985ean bereganatu zuenetik gaur arteko historia azaltzen du.

Ezeren aurretik, Donostiako aurkezpenean, azken urtetako SAPari buruzko aurreneko ertratatu marraztu zuten, oinarritzko hainbat datuen eskutik: "1985ean, Soralue eta Andoaingo planta bana zituen SAPA desagertzeko zorian zegoen, eta orduan gertatu zen esku aldaketa jabetzan. Egun, Andoaingo kokatzen da bere planta bakarra, 140 langilerekin. Aparte, beste 60 bat administrazio eta ingeniari ere baditu, eta horiek, batik bat, bere inguruan sortu dituen egoitza fisikorik gabeko hogeitik gora sozietateen plantillak osatzen dituzte. Grupo SAPA osatzen dute Andoaingo plantak eta sozietate horiek. Aitaren ondoren, Ibon eta Jokin semeak heldu ziren, eta azken urtetan, familiako kide ugari (ilobak, bilobak...) ari dira hainbat lanpostu kubritzen".

Ekoizpenari dagokionez, "Pizarro eta Leopard borrokarako ibilgailu blindatuen edo artilleriarako osagaiak ekoizten ditu, eta, lurreko ejertzitoaren VCR 8x8 programan murgilduta dabil. Hori dena salmenta zuzenari dagokio. Eta aparte, ez gendake aiantzi behar produkzioaren mantenua; hain zuzen, mantenuaren atal horrek ekoizpenak baino negozio handiagoa eragiten dio SAPari. Ofizialki, munduko honako herrialdeentzat ekoizten du: Alemania, Arabia Saudi, Argentina, Egipto, AEB, Grezia, Jordania, India, Oman, Suedia, Suitza, Taiwan eta Turkia. Bestalde, liburuan, hain legezkoak ez diren balizko esportazioak ere aipatzen ditugu".

Erantsi zuten, SAPAk, urtero, 30-40 milioiko salmentak lortzen ditu, eta horietatik irabaziaz, berriz, laupabost milioi lirarete.

"Lortzaileen" ezinbesteko lana

Bere administrazio kontseiluan gobernuarekin (Defentsa ministerioa batez ere), politikagintzarekin edo armagintzarekin lo-



Asparren eta Escalante, arratsaldean, aurkezpena egin zuten jendaurrean, Kaxilda liburudendan. AIURRI

tura bereziak dauzkaten pertsonak ipintzea da SAPAren zutabe estrategikoetako bat, liburuaren egileen iritziz: “Horiek ‘lortzaile’ gisa funtzionatzen dute, ateak irekitzen dizkiote. SAPAn lehendik ere egonak ziren Calonge eta Carrion familia-sagak daude kontseilu horretan, hasteko”.

Dena den, eta zehaztu zuten, lehenbiziko urtetan, Gabriel Peña Aranda izan zen SAPAren “lortzaile”rik nagusiena, 2002an hil zen arte. Peña Aranda RTVEko zuzendaria izan zen Suarezzen garaian, eta baita ekoizpen militarreko ingeniaria eta zuzendaria Industria Institutu Nazionalan defentsako arloan ere.

“Azken bi hamarkadetan, bere tokia Pedro Morenes bizkaitarrak hartu du”. Morenes Aznar eta Rajoyren gobernuetan defentsa ministroa izan zen 2011-2016 epean, eta AEBetan Espainiako enbaxadore 2017-2018an.

Era horretan, SAPAk, Defentsa ministeriotik hamarkadetan irabazitako hainbat adjudikazio, lehiaketa eta abar “modu misteriosuan” irabazi dituela ziurtatu zuten egileek.

“Kasu arraroak”

SAPAren gainean “kasu arraro” mordoa topatu dutela adierazi zuten. Horietako batek enpresak bere memorietan aitortzen duen zorrek du zerikusia: “enpresa berak 20 milioi euroko zorrak dituela aitortzen du sozietatean gaineko zerga dela eta, baina, aldi berean, lehiaketak irabazten

eta diru laguntza publikoak lortzen jarraitu izan du. Kontraesankorra izan behar luke hori, izan ere, bi iturri horiek lortzeko legeak zergen kontuan egunean egotea eskatzen du. Zaila da ulertzen, ez bada faborezko tratua ezartzen zaiola...”.

SAPAk Soraluze eta Andoaingo udalekin edukitako kudeaketa urbanistikoarekin lotu zituzten beste kasu “arraro” horietako bi. “2000ko hasieran, Soraluzeko Udalari lantegia handitu nahi zuela jakinarazi zion, eta horretarako egitasmoa finantziatu beharra zeukala. Horrela, zera proposatu zion: bere lursailak berkalifikatu eta lurzoru urbanizagarria deklaratzeko, eta, modu berean, trukean, berari beste lursaila ematea. Soraluzeko udal teknikariek hori hein batean ez zela posible ebatzi zuten. Gauzak horrela, SAPAk Soraluzeko enpresa itxi eta bertatik aldegitea erabaki zuen; orduko alkatearen eta langileen hitzetan, mendeku hutsa izan zen”.

Liburuaren egileen esanetan, segidan, SAPAk Andoaingo Udalari antzeko planteamendua egin zion. “Bere lur sailak berkalifikatzeko planteatu, eta lortu zuen 2006an, hitzarmen baten bidez, Udalak Hiri-antolamenduko Plan Orokorra alda zezan. Era horretan, asko gabe, SAPAk planta zaharra itxi eta Antzizuko Industriegunean berria irekiko du, operazioarekin azpikeria edo ‘pelotazo’ urbanistiko ikaragarria lortuz”.

Andoaingo kudeaketa ondo atera zitzaiola ikusita, berriro Soraluzen jarri omen zituen begiak SAPAk. “Bere sozietate baten eskutik, Andoaingen erabilitako antzeko formula proposatu zion Udalari, esanez bere lur-saila bitan zati zitekeela, batean, hark ekipamendu publikoak eraikitzeke, eta, bestean, SAPAk etxebizitzaren promozioa egiteko. Eta gezurra badirudi ere, hori dena posible egiteko, Udalak, 2015ean, Hiri-antolamenduko Plan Orokorra alda dezan lortu zuen”.

Lanpostuen “mitoa”

Donostiako aurkezpen bikoitzean ziurtatu zuten, mugimendu antimilitaristak ez du aldarrikatzen armagintzako enpresak ixtea. “Alternatibarik egokiena enpresa horiek berregituratu eta izaera zibileko ekoizpena bideratzea” dela uste dute.

Alde horretatik, SAPAren adibidea gogorarazi zuten argudio hori indartzeko. “Bere historian erakutsi izan du ekoizpen zibil-lakoko gaitasuna –eskarmetua, azpiegitura, makinaria...– badaukala, ehungintzaren, automozioaren edo trenbideen sektoreetan, batik bat. Are gehiago, 90eko hamarkadaren hon-

EGILEEK ZIURTATU ZUTEN SOILIK PUBLIKOA DEN INFORMAZIOAZ BALIATU DIRELA

darrean, ehungintzaren ekoizpenak militarrenak baino irabazi handiagoak eman zizkion. Kontua da zuzendaritzak sekula ez duela benetako apustua egin horren alde. Zertarako egin, baina, armagintzan egundoko irabaziak lortzeaz gain, pribilegioak ziurtatuta baldin badauzkate, kontratuak hatzez ematen badizkiote, eta beraz, merkatuan lehiatu beharrik gabe joka badezake? Izan ere, publizitate-rik gabeko lehiaketa negoziatuak izaten dira nagusi mundu horretan; enpresa bat gonbidatzen dute lehiaketan parte hartzera, eta zuzenean kontratua eskura jartzen diote. Horiei bost axola ekoizten dituzten armak gero munduan zehar pertsonak hiltzeko erabiltzen badituzte ere...”.

Lanpostuak eta aberastasuna sortzearen “mitoa” hautsi behar dela ere azpimarratu zuten Donostian. “SAPAk 800 langile inguru eduki zituen 50eko hamarkadan. Hortik aurrera, ordea, jaisten joan da kopurua, hamarkadaz hamarkada, 200era iritsiz”.

Desmilitarizazioa, mezu nagusia

La Sapa de los Aperribay. La Guerra Empieza Aquí liburua kaleratuz batera, AntimilitaristaEH kolektiboak mezu argia zabaldu nahi izan du: “Desmilitarizaziorantz jo behar dugula adierazten diogu irmoki euskal jendarteari, armagintzaren sektorea deuseztatu behar dugu. Izan ere, munduko gerrei oposiziorik eraginkorrena, horiek ez pizten ahalegintzea da. Eta, horretarako, galarazi beharra dago enpresek armak ekoiztu, eta horiekin negozioa egin dezaten; geuk, geure inguruan, eragin dezakegu eginkizun horretan. Ukrainako gerra jada ez dugu eragotziko, baina etorkizunean, armen ekoizpenari kito esaten badiogu, gehiago ez da izango herrialdeen arteko gatazka armaturik!”.

Desmilitarizazioa utopia egingarria dela aldarrikatzen dute, eta, atzera begira jarrita, badute adibiderik horri eusteko: “80ko hamarkadan, gazte zarpa-zikin batzuen kontua bilakatu zen ezetz esatea soldaduskari. Baina hamar-hamabost urteren buruan, gizarteko sektore handi bat kontzientziazteaz lortu zuten, eta baita soldaduskaren abolizioa ere!”.



Liburuaren azala. ANTIMILITARISTAKEH

Liburua atalez atal

- Aperribay familia SAPA eta armagintzan esku hartzea, eta bere inguruko kontratu eta diru laguntza publikoen “lortzaileak”.
- Grupo SAPAren osaketa, gaur egun: sozietateak, sozietate akziodunak...
- Armagintzako beste enpresa, enpresa-talde edo partzuergoetan akzioen jabetza.
- Ekoizpen militarren zerrenda (Pizarro eta Leopard borrokarako ibilgailu blindatuak, artilleriarako osagaiak, lurkeko ejertzitoaren VCR 8x8 programa...).
- Esportazioak, ofizialak zein hain legezkoak ez diren balizkoak.
- Kontratu eta diru laguntza publikoak.
- “Kasu arraroak”; hala nola, Andoaingo zein Soraluzeko Udalekin egindako hitzarmen urbanistikoak, Gipuzkoako Aldundiarekin milioi askotako zorrak, erakunde publikoek eskainitako kreditu aldaketa mesedegarriak, Hiriko auto elektrikoak...
- SAPAren oraina eta etorkizuna: bere inbertsioak eta armagintzako beste enpresen akzioen erosketak...

Liburua salgai

Andoain: Ernaitza.
Donostia: Kaxilda, Hontza.
Prezioa: 10 euro.



"Egin ditudan Zegama guztietan sei ordutik beherako marka egin dut". JAUREGI



Jokin Lizeaga eta Ainhoa Jauregi, helmugan. JAUREGI

“Zegama-Aizkorri bosgarrenez korritzea oparia da niretzat”

AINHOA JAUREGI URNIETAKO LASTERKARIA

MENDI LASTERKETAK Urnietarrak sei orduko langa jaisteko asmoa izango du, aurreko ekitaldi guztietan egin duen bezala

Andoni Urbistondo URNIETA

Eguraldiaz galdezka erantzun ditu galderak Ainhoa Jauregi (Urnietak, 42 urte). Lau hilabete luze daramatza Zegama-Aizkorri prestatzen, eta egun gutxi batzuk baino ez dira geratzen proba hori osatzeko. Bere azken Zegama izan litekeela jakitun da; eta gozatu egin nahi du, eta hiru seme-alabekin ondo gordetzeko moduko argazkia atera helmugan. **Zer suposatzen du zuretzat berriro Zegama-Aizkorri egiteak, orokorrean?**

Normalkuntza puntu bat. Garai latzak pasa ditugu sozialki eta hainbat jardueratan, izan ditugun mugekin, eta orain festak, kale-giroa eta beste berreskuratu ditugun neurrian, oso positiboa da berriro proba hori korritzea.

Eta maila pertsonalean?

Pertsonalki, gai izan naizela mendiko maratoni bati aurre egiteko, horrek eskatzen duen prestakuntza handia gaitututa. Opari bat da han egotea, eta opari bat hiru urte atzera Zega-

man egin nuen denborari esker dortsala hori ziurtatzeko gai izan nintzelako. Sinetsita nengoen ezin niola opari horri uko egin. Gaitasun hori berreskuratzeko modua daukadala jabetu naiz, pandemiaren ostean, eta festa bat, egun on bat pasatzeko aukera izango da. Bosgarren Zegama-Aizkorri izango da niretzat, eta pribilegiatua sentitzen naiz. Lehena umeak izan aurretik egin nuen, eta ez zen nire denbora onena izan. Nire marka onenak ama izan eta gero izan

dira, eta onena hiru umeak edukit ostean, 2019an. Urte horretan, 05.37 egin nuen. Bero handiko eguna, eta aproposa ez marka ona egiteko, baina nik lor dezakedan denbora onenaren oso gertutik zegoela esango nuke, oso prestakuntza ona egin nuelako. Egin ditudan Zegama guztietan sei ordutik beherako marka egin dut.

Eta, bosgarrenean, ze asmo?

Bada, sei orduko langatik jaistea, berriro. Baina 42 urte ditut, hiru gehiago. Bizitzako karga, hiru ume, lanaldi osoa, beste zaletasun batzuk ere jorratu ditut... Sei ordu eta sei ordu eta erdi artean ibiliko naizela esango nuke. Erreferentziak badituzte, eta lasterketako bi heren osatu ostean jakingo dut sei orduetatik jaisteko aukera dudanez edo ez. Ez nau markak itsutzen, dena den, proba aurpegi onarekin bukatzea baizik, gozatzea, eta hiru seme-alabekin etorkizunean gordetzeko moduko argazki polit bat egitea helmugan. Uste dut bero handi samarra datorrela iganderako, eta horrek zailtasuna handitzen du. Muturreko eguraldi guztiek bezala. Pazientziarekin jokatu, ondo jan, ondo edan eta korrika egin. Ondo ezagutzen dut dagoeneko nire gorputza, eta ondo neurtzen dut nire ahalegina.

Zer esaten dizute aurten korritu dituzun probetako zenbakiek?

Sei edo zazpi egin ditut, horietako bat 35 kilometrokoa, orain dela hilabete edo. Zegama egiteko gai ote nintzen jakiteko egindako testa izan zen, hain zuzen ere. Egin nuen, eta jabetu nintzen Andraitx mendira iritsiko nintzela (Zegama-Aizkorri maratoni bati heren markatzen dituen mugarria). Handik behera, Zegamara bitarte, iraun.

Zer ematen dizu mendian aritzeak?

Sentsazio onak. Korrika egiten baduzu, osasunez ondo zaudela esan nahi du, animo eta energia baduzula, tamainako ahaleginak egiteko. Beraz, bizirik sentitzen naiz korrika ari naizela, oso gauza pertsonala. Egunerokorako ere oreka eta indar handia ematen dit. Ez da sailkapen edo emaitza jakin baten kontua, maila pertsonalean esanahi berezia duten hainbat gauza baizik.

Jokin Lizeaga bikotekidea esatari arituko da Euskal Telebistan. Nola biziko duzu egoera berezi hori?

Benoa, antolakuntza mailan umeen zaintzan eta arazotxo batzuk eman dizkit, baina tira, ja koskortuta daude eta moldatuko gara. Badakit Jokin gustura aritzen dela esatari jardun horretan, eta bion nahiak uztartzen saiatzen gara. Egoera ideala biok dortsala janztea izango litzateke, eta ea posible den urteren bat amets hori betetzea. Berak nahi du, azken aldiz, Zegama batean dortsala jarri eta korrika egin, ez dakit ni moldatzeko gai izango naizen. Aurtengoa nire azken Zegama izango da, akaso. Esfortzu handia eskatzen du niretzat, eta lau hilabete daramatzat egurrean, San Sebastian egunetik, hain zuzen ere. Gogor egin nion neure buruari, esanez, ‘edo mendian korrika hasten zara, edo Zegamari agur’, eta hasi nintzen, pixkanaka. Jokinek korrika egingo balu, ahalegina egingo nuke, eta, ez bada posible, ikusiko dugu. Mendi-lasterketak korritzen segituko dut, baina maratoni distantzietan ez. Maratoniak prestatzekin ahalegin handia eskatzen du, eta ondo pentsatu behar da.

Mezuren bat, Sancti Spirituko maildan gora egongo diren urnietarrei?

Ondo hartuak izango direla euren animoak, ura eskaintzeko eta eskertza mezu zintzoa.

"Zure izena eliteko korrikalarien artean ikustea oso berezia da"

OIER ESCUDERO MENDIZABAL ANDOAINGO LASTERKARIA
MENDI LASTERKETAK Gazteak lehen aldiz parte hartuko du Zegama-Aizkorri mendi-maratoian

Mikel Arberas ANDOAIN

Kilometro bertikalean eta junior lasterketan lehiatu du, baina aurtengoa maratoia egingo duen lehen aldia izango da.

Nola sentitzen zara lasterketarako egun gutxi falta direnean?

Nire lehen Zegama-Aizkorri da. 2020ko zozketan izena eman nuen, baina, pandemia medio, guztia bertan behera geratu edo atzeratu egin zen. Zorionez bi urteren ostean, lehen lasterketa honetan parte hartzeko aukera izango dut. Aitortu behar dut, oraintxe bertan, oso urduri nagoela. Presio handia dut lasterketa ondo egin nahi dudalako eta, entrenatzeko garaian, helburu batzuk ezarri nituelako. Espero dut, mementoaz eta lasterketaz gozatzea galaraziko didan ezer ez jazotzea.

Azken aste hauetan asko entrenatzen ari al zara? Eta dieta? Eguneroko errutina?

Abenduan lesio bat izan nuen eta, beraz, otsailera bitarte ezin izan nuen asko entrenatu. Dena den, azken bi hilabeteetan, asko entrenatu dut, nahiz eta, azken asteetan lasaiago ibili naizen lasterketara fresko eta deskantsatua iristeko. Errutina zehatz bat egiten saiatzen naiz, betiere nire mugak errespetatuz eta azken egunetako nire urduritasunak ahalik eta ondoen kudeatuz. **Zer da zuretzat, Kilian, Kortazar edota Egea bezalakoekin lehiatzea eta lasterketa berdinean parte hartzea?**

Izugarrria da Zegama-Aizkorri parte hartuko duten eliteko korrikalarekin lehiatu ahal izatea! Berezia da ere, zure izena elite-

ko korrikalari horien zerrendan egotea. Gozatzen saiatuko naiz eta emaitza politena lortzea izango dut xede, egindako lanaren erakusle.

Zegama-Aizkorri alde batetik oso ezaguna egin da duen afizioagatik. Nolako espero duzu?

Egia esan, afizionatu gisa, maiz joan naiz Aizkorrira. Badakit zein den bertako giroa eta zer datorikidan. Hala ere, korrikalari moduan ez dut sekula parte hartu. Zirrarragarria izango dela pentsatzen dut.

Nola aurreikusten duzu lasterketa eta zein da zure helburua?

Ez dakit nolakoa izango den. Etxekolanak ondo egin ditudala pentsatzen dut, oso ondo entrenatzeko aukera eduki dut; hala eta guztiz ere, igandean ikusiko da nolakoa osatzen dudana, beste hainbat faktore baitaude lasterketan eragiten dutenak.

"BADAKIT ZEIN DEN TOPATUKO DUDAN GIROA. ZIRRARAGARRIA IZANGO DA"



Oier Escudero Mendizabal Andoaingo lasterkaria. ESCUDERO



AIURRI

Andoaingo eta Urnietako partaideak, igandeko Zegama-Aizkorri lasterketan

Mikel Legarreta aski ezaguna da, besteak beste, Zegama-Aizkorri lasterketaren edizio guztietan parte hartu duelako. Aurtengoan ere ez du hutsik egingo. Maiatzaren 15ean

Ereñotzuko lasterketan parte hartu zuen. Maialen Gurrutxagarentzat erronka izango da maratoia burutzea. Aldeko du urte hauetan guztietan metatu duen eskarmentua. Unai

Ezeiza urnietarra ere irteeran izango da. Izakera apalekoa, maila bikaina erakutsi du hainbat urtetan. Oier Escudero eta Ainhoa Jauregirekin bi herrietako ordezkaritza osatzen dute.



Asier Rajado, Adarra Trail lasterketa irabazi ondoren. AIURRI

Goizutrail lasterketan hirugarren helmugaratu zen Asier Rajado

MENDI LASTERKETAK Begiz jota duen Mendi Erronka iristear da: Leitzatik abiatuko den 67km-ko ultra traila

Erredakzioa ANDOAIN

Urratsez urrats iristen ari da egutegian begiz jota duen lasterketa: Mendi Erronka. Bidean gauzak ondo doazelako pozik egon daiteke Asier Rajado andoainarra. Maiatzaren 15ean Adarra Trail lasterketa irabazi zuen, etxekoan babesa eta txaloak jasoz. Aurreko asteburuan 25 kilometroko Goizutrail lasterketan parte hartu zuen eta hirugarren sailkatu zen. "Lasterketa ederra! Milesker antolakuntzari eta animatzen zegoen jende guztiari", adierazi zuen Rajadok sare sozialetan.

Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa, ekainaren 4an

"Kirol ekitaldi hutsaz gain, aldarrikapena oinarrian darama", aldarrikatu nahi dituzte antolatzaileek. Ofizialtasuna, Mendialdea-Aralarko inguruaren garapena, euskararen sustapena eta ingurugiroaren babesa aldarrikatu nahi dituzte.

67 kilometroko eta 7.200 metroko desnibel metatua duen proba da, inguru menditsu ikusgarrian barrena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaldea). Hasiera eta helmuga puntuak Leitzan izango dira.



Iturzaeta memoriala. AIURRI

Jardunaldi berria Sorabillan

PALA Larunbat honetan jardunaldi berria jokatu da Sorabillako pilotalekuan

Erredakzioa ANDOAIN

10:00 Urruz.-Setien/Guti.-Leku.
10:30 Setien I-II/Mujika-Arberas.
11:00 Amonda-Javi/Unai-Tronko.
15:30 Otam.-Urtzi/Eskudero I-II.
17:00 Loidi I-II/Egibar-Arrieta.
17:30 Bela.-Berrobi/Beloki-Arr.
18:00 Edur.-Amaia/Neide-Enara.
18:30 Elix.-Alaine/Edur.-Amaia.
19:00 Ipintza-Gaz./Ponce-Alkorta.



GAZTELEKU

Txapela eskuratu zuen Morenok

ZESTA Zestako Emakume pilotari txapelketako partiduak jokatu ziren aurreko asteburuan, Arraten. Gaztelekuko Irati Moreno pilotaria infantil mailako aurrelarietan txapelduna izan zen. Infantil mailan atzelari txapelduna Frida Watkins zumaiarra. Federatueta, berriz, Eneritz Lizardik jantzi zuen txapela.

Ansak 20 tanto egin zituen

ERREMONTEA Oriamendi

enpresak adierazi bezala, "hirugarren larunbata jarraian Galarretara hurbildu ziren zaleek maila handiko estelarrak gozatu ahal izan zuten. Seguroa eta Barrenetxea IV.ak 40-37 irabazi zieten Ansa II eta Azpirozi. Partida ikusgarria izan zen. Urrietako aurrelariak 20 tanto egin zituen".



ORIAMENDI

Denboraldia borobildu dute, Kopa irabazita

ESKUBALOIA

Liga irabazi eta iguera eskuratu ondoren, Andoaingo Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Kopari heldu zion. Seitik sei partida irabazi eta gero, finalean 22-27 irabazi zuen Txingudi Goser taldearen aurka.

Bakoitza bere taldeko ligaxkan lehena izan zen, eta gainera biak ere partida guztiak irabazita zeuden. Finalean garaipenaren bidean jarraitu zuena Andoaingo taldea izan zen. Zorionak!



LEIZARAN



JUAN CARLOS SANCHEZ SANCHEZ

Agurra, zaletuekin batera

ESKUBALOIA Senior mailako bi taldeek zaletuak gertu zituztela amaitu dute denboraldia. Azken asteetako joera nagusitu da, eta Leizaranek txapelkun-orde eta igoera eskuratu agurtu du denboraldia. Urrietako taldea laugarren sailkatu da, eta hurrengo denboraldirako igoerarekin amesteko aukera berria izango du. Azken partida: UKE 22-23 Leizaran.



JUAN CARLOS SANCHEZ SANCHEZ



ANDOAINGO

Taldeko erlojupekoa

TXIRRINDULARITZA Bizikleta ganean jarduera ezberdinetan trebatzen ari dira haur eta gaztetxoak. Aurreko asteburuan alebin eta infantil mailakoak Ezkion izan ziren, erlojuaren kontrako Gipuzkoako taldekako txapelketan parte hartzen. Esperientzia polita haur eta gaztetxoentzat.



Aurtengo Herriartekoa. AIURRI

Hernani-Andoain, eskuz Herriartekoan

PILOTA Alegia gaintu du final zortzirenetan. Hurrengo bi asteburuetan final laurdenak

Erredakzioa ANDOAIN Idiazabal eta Alegia herrien aurkako kanporaketak gaintu ostean, Hernaniren aurka lehiatu behar du Andoainek hurrengo bi asteburutan. Aurkaria maila handiagokoa da, baina andoaindarrek aurrera egiteko itxaropena ez dute galdu nahi.

Alegia 1-2 Andoain

Andoainek berriro ere hiru partidetatik bi irabazi zituen. Lehen partida Beñat Salbador eta Eneko Uria kadeteek jokatu zuten. Hasiera batean, aise irabazten hasi ziren, alde handiarekin, baina azken txanpan kadeteen urduritasunak kalte egin eta aurkariak tanto ugari egin zituzten. Azkenean, 19-22 amaitu zen partida. Bigarren partida, Eneko Beloki eta Joseba Beroz jubenilek jokatu zuten. Beroz defentsa lanetan bikain aritu zen, eta Belokik, ohi bezala, pilotakada indartsuekin min handia egin zuen (13-22). Azken partida, Imanol Usandizaga eta Aritz Eskudero seniorrek jokatu zuten, baina aurkariak nabarmenki gailendu ziren (22-7).

Ostiral honetan Hernanin dute joanekoa, 19:30ean hasita. Eta itzulikoa Andoaingo Arraten, hurrengo ekainaren 3an 19:30ean hasita.



Ponce, Iradi, Alkorta eta Rekalde. AIURRI

Andoain jarduera ezberdinetan ari da jokatzeko Herriartekoan

PALA Larruz eta motzean Debaren aurka lehiatzen ari dira, gomazkoan aldiz Astigarraren aurka

Erredakzioa ANDOAIN Erraminta ezberdinetan ari dira. Denera, lau lehiaketatan parte hartzen ari da Andoain eskuzko txapelketa kontutan hartuta.

Paleta larruz, Herriartekoa

Debarrek bi paletista berri aukeratu zituzten. Lehen tantotik aurrea hartu zuten andoaindarrek. Partidan, erdialdera, 11 tantoko aldea zuten arren, debarrek abantaila hori murriztea lortu zuten. Andoaindarrek, ordea, pilota aldatu eta berriro ere abantaila hartu zuten. Azkenean partida alde handiagatik irabazi zuten (35-17).

Pala motza, Herriartekoa

Lehen bost tantotan aurretik jarri arren partidan erdialdera arte atzetik ibili ziren andoaindarrek. Debarrek ahal zutenean pilota bizia aukeratzeko zuten andoaindarrei aurre hartzeko. Palista andoaindarren esanetan,

pilota biziarekin hobeto jokatzeko zuten, baina pilota motela efektiboagoa zen. Azkenean, andoaindarrek nagusitu ziren (40-36).

Paleta gomazko Herriartekoa

Andoainek 1-2 galdu zuen Astigarraren aurka, final zortzirenetako joaneko partidan. Bana, frontoi osoan, Josu Echeverriak galdu egin zuen Salaberriaren aurka (16-20). Bigarren partidan, binakakoan, Mikel Agirrek eta Imanol Borrerok galdu egin zuten Astigarraren Txoperena-Zubiarrain bikotearen aurka (6-20). Azken partidan, Julen Loidik partida latza jokatu zuen Ganix Urdangarinen aurka, baita irabazi ere. Astigarraren aurrelari gaztea oso bizi atera zen eta asko estutu zuen andoaindarra. Hala ere, tantoen amaieran hobeto asmatu zuen Loidik, tanto ikusgarriak eginez. Itzulikoa Astigarraren da, larunbat honetan 10:00tan.



Gomazko paletako taldea, 2021eko edizioan. GAZTELEKU

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

ANDOAIN Erakusketa

Kanpezu 50 urte, La Salle Berrozpe ikastetxeko kanpaldiari buruzkoa.
Azken eguna: Maiatzak 28.
Bastero.

ANDOAIN Lehiaketa

Hogar Extremeñoren mikrokontaketen, argazkien eta marrazketen lehiaketa martxan da. Gazte eta helduen mailakoa da. Lanak aurkezteko: heconcursosonline@gmail.com. Informazio gehiago: heelmiajondeloscastuos@gmail.com e-postan.
Azken eguna: Ekainak 4.

OSTIRALA 27

ANDOAIN Ate irekiera

Euskara ikasi nahi dutenentzat. Izen ematea: andoain@aek.eus.
10:00, 17:00. AEK euskaltegia.

ANDOAIN Dantza

Basotik itsasora, Dantzaz.
19:00, Bastero.

LARUNBATA 28

ANDOAIN Tailerra

Eskalada tailerra.
Informazioa: Gazte Lokala.

IGANDEA 29

ANDOAIN Dantza

Urki dantza taldearen ikuskizuna, ikasurte amaierakoa.
12:00, Bastero.

ASTELEHENA 30

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2022-2023 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea zabalik dago, datorren maiatzaren 30era arte. Matrikularen inprimakia bete eta lourdesiriondo@urnieta.eus helbidera bidali behar da. Informazio gehiago Lekaio kultur etxean: 943 00 80 33.
Azken eguna: Maiatzak 30.



2019an hainbat sari eskuratu zituen. CINEYLITERATURA

ANDOAIN Irene Solà idazlearekin literatur solasaldia

"Canto yo y la montaña baila" eleberrian hitza hartzen dute Camprodon eta Prats de Molló artean bizi diren emakumeek eta gizonek, mamuek eta uretako emakumeek, hodeiek eta perretxikoez, txakurrek eta orkatzek.
Maiatzak 31, asteartea. 19:00-20:30, Bastero.

ASTEARTEA 31

ANDOAIN Partaidetza prozesua

Hirigintza eta generoa, Berdintasun sailaren eskutik. Azterketa, ongizatean, elkarbizitzan, zainketetan eta kontziliazioan oinarritua.
18:00, Urigain.

ANDOAIN Literatur solasaldia

Irene Sola idazlea gonbidatu dute Udal Liburutegiko kideek. "Canto yo y la montaña también" liburuaz jardungo dute.
19:00-20:30, Bastero.

URNIETA Antzerkia

"Redada familiar", aurre-estreinaldia. Aktoreak: Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Nerea Gorriti, Xanti Korkostegi, Aitziber Garmendia.
19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 2

URNIETA Antzerkia

"Itsatsita: Ez ohiko musikala". Aktoreak: Xanti Korkostegi, Maria Redondo, Ainhoa Aierbe, Paul San Martin. Demode ekoizpen etxearen eskutik.
19:00, Sarobe.

OSTIRALA 3

URNIETA Antzerkia

"Esnatu naiz", Andoni Mutiloaren eskutik. Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, baina batez ere, gure nortasunarekin bat egin eta aske bizitzeko gonbitea.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Hitzaldia

"Ingurumenaren auzia kapitalismoan", Jarkik antolatuta. Ekainaren 11rako mendi-martxa antolatuta dute Buruntzara.
18:00, Andoaingo Gaztetxea.

ASTELEHENA 6

URNIETA Kontzertu-sorta

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasturte amaierako emanaldiak.
Ekainak 6-10.

ASTEARTEA 7

ANDOAIN Partaidetza prozesua

Hirigintza eta generoa. Herriko hainbat espazio eta eraikin publikoen diagnostiko osoa.
18:00, Urigain.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Cinco lobitos**

Larunbata, 28.
19:30, 22:00.
Igandea, 29.
19:30.
Astelehena, 30.
19:30, 22:00.

SINOPSISIA

**CINCO LOBITOS**

Zuzendaria: Alauda Ruiz de Azua. **Aktoreak:** Laia Costa, Susi Sanchez, Ramon Barea, Mikel Bustamante, Jose Ramon Soroiz...
Herrialdea: Espainia. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 104 minutu.

Kritika bikainak jaso dituen filma

Amaia ama izan berri da eta ez daki oso ondo ama bezala nola jokatu. Bere gurasoen etxera itzultzea erabakitzen du, Euskal Herriko kostaldeko herri polit batera, eta, horrela, bere

haurra zaintzeko ardura partekatzen du. Amaiak ez daki, orain ama izan arren, ez diola alaba izateari utziko. Sari eta kritika on ugari jaso dituen filma da.

KOMUNITATEA

AEK EUSKALTEGIA ANDOAIN

Ate-irekiak jardunaldiak ostiralean

Maiatzaren 27an, ostirala, ate-irekiak izango ditugu 10:00-11:00etara eta 17:00-18:00etara. Atzerriko jatorria dutenei zein hemengoei zuzenduta egongo da bisita. Interesa izanez gero, izena ematea beharrezkoa da.

Zer da euskaltegi bat? Zer ikastaro ematen ditugu bertan? Norentzat da aproposa? Galdera horien erantzunak eta bestelako argibideak ere emango dizkizugu ostiralean. Egungo gizartearen euskara jakitea gero eta garrantzitsuagoa da, eta horregatik lehen pauso hori ematen lagundu nahi dizugu. Sinetsita baikaude euskararekin ateak zabalduko zaizkizula, eta nola ez, gehiago sentituko duzula. Atzerriko jatorria dutenei zein hemengoei zuzenduta egongo da bisita.
Anima zaitetz!



AIURRI

Urki dantza taldearen emanaldia

"Gogotsu eta ilusioz beterik", horrela sentitzen dira igande honetako emanaldiaren atarian. Eguerdiko 12:00tan hasiko da, Bastero Kulturgunean. Familia, lagun eta herritar orori zabaldutako saioa izango da, eta Euskal Herriko dantza ezberdinak taularatu nahi dituzte. Bide batez, Urkik jakinarazi du aurten 32. Haurren Euskal Jaialdia urriaren 23an ospatuko dela.



UDALA

Pasabide berria, prest

Tren geltokirako pasabidea egokitze obra amaitu da. Pasabide berria, 2,5 metroko zabalerakoa, Magale ikastetxearen horma eta geltokiko nasaren artean dagoen berdegunean eraiki da, eta orain, San Juan kalea eta Geltoki kalearen arteko lotura egin daiteke. Lanak erabat amaitzeko bi farola berri ipintzekoak dira eremu hori argizatatzeko.

Maria Angeles Belamendia Tolosa andoaindarra

IN MEMORIAM Sorabillako Erramuta baserrian jaio zen, 1931n. Aurreko ostiralean zendu zen, 91 urte zituela

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo hainbat euskaltzale bezalaxe, ondorengoentzat lekukotza ederra utzi du. Haren oroitzapenak Aiurrin, baina bereziki Ahotsak egitasmoan aurki daitezke. Ahotsak.eus gunean klik eginez gero Maria Angelesen hainbat bideo aurki daitezke. Bideo bakoitza iraganeko gertaera edo ohitura bati egindako aipamena da. Lagin modura har daiteke 2017an Aiurri astekariari adierazitakoa, Basteron hainbat euskaltzalek jaso zuten omenaldiaren harira: "Larre motzean hazitakoak izan arren, beti kontuak adieraztearen aldekoak izan gara. Hamai-ka seme-alaba ginen baserrian baina ama oso ona genuen, eta behin ere errietarik ez zigun egin. Euriak kalean harrapatu eta etxera itzuli behar zenean, alpargatak ez puskatzeagatik lepoan hartu eta hankutsik abiatzen ginen. Intxaurrondo handia bagenuen etxe ondoan, eta ezkurak erortzen ziren garaian, kokka batean jarri eta panpinak egiten genituen intxaurrekin eta ezkurrekin; batzuk mantalarekin, besteak mantalik gabe... Kalera etorrita, kale bakarra zen Andoain baina hortik ez zen automobilik ibiltzen, eta gu txingoka jolasean zenbat ez ote ginen ibili karretera generalean, kotxerik ikusi gabe! Gerra ere ezagutu genuen, baita soldaduak eta guardia zibilak; bonbak etxe ondolik pasatzen zitzaizkigun eta korrika abiatzen ginen be-

laze azpian sartzera. Holaxekoa izan zen gure bizimodua, baina beti pozik! Umeak ume bezala pasatzen badiu urte horiek, jolasean eta horrela, zoriontsu da beti.

Sorabillara joaten ginen plazara, eta han On Domingo apaiza egoten zen. Harekin ikasi genituen lehenbiziko letrak, batuketak, kenketak, dotrina... Dena euskaraz! Hark ez zigun dotrina galdetzen; "zuek nik baino gehiago dakizue" esaten zigun. Gero eskola publikoan hasi ginen, eta han dena erderaz eta eskas. Piku baten azpian, astean behin guri doktrina ematearen aitzakian, euskaraz hitz egiten genuen. Goxokia ekartzen zigun; badakizu zer zen guretzat goxokia apaizak ekarrita? Gero hasi ginen kalean eta fabrikaren erdaldunekin. Gure etxean erderaz hasten ginen, eta komeriak aitarekin! Ez eskolatua izanagatik, bizkorra zen hura! Behin bakarrik jo zidan, ia-ia sudurra txikitze adinakoa. Erdaraz sumatu gintuen ahizpa eta biok behin, eta danba! Hantxe bukatu ziren, gaur arte, erderazko kontuak!". Maria Angelesen eta enparauen lekukotzari esker, iragan mendeko ohiturak, joerak eta gertaerak gure artean gertuko dira.

Joxe Mari Huiciren alarguna, herrian oso ezagun diren bost seme-alaben guraso ziren. Aslehenen azken agurra, jendetsua, egin zioten Maria Angelesi San Martin Tours elizan.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Aia Korta Martinez
Dagoeneko eman diozu eguzkiari lehenengo bira! Zorionak txiki! Muxuak Aratz, amatxo, aita eta familia osoaren partetik.



ANDOAIN
Izaro Irazu Roman
Izaro Irazu Romanek maiatzaren 30ean 15 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Oinatz Zatarain Korrotxano
11 urte bete ditu maiatzaren 23an. Zorionak etxeko partetik!



ANDOAIN
Joxe M^a Ollakarizketa
Ekainaren 2an, Joxe Mari urteak beteko ditu. Urte askoan!!! Ondo ospatu urtemuga... Besarkada bero bat eta muxuak etxeko partetik.



ANDOAIN
Itxaso Santxez
Zorionak zure 25. urtebetetze honetan. Etxea kantuz alaitzen jarraitu dezagun. Maite zaitugu!

Urte askotarako

www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean
Whatsapp bidez:
619 16 35 37
diseinua@aiurri.eus
Arantzibia 4-5, behea Andoain
Telefonoa:
943 300 732

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintz-lagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA

Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Taberna lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataberna1@gmail.com-en edo 659 039 922 telefonora deituta.

ESKELA

Valentina CABANILLAS GARCIA

Maiatzaren 10ean hil zen, Andoain, 66 urte zituela.

Betiko gogoan izango dugu zure eskuzabaltasuna. Auzoari eta auzotarrei eskainitakoa asko izan da.

Sorabillako Jai Batzordea

Andoain, 2022ko maiatzaren 11n

ESKELA

Maria Angeles BELAMENDIA TOLOSA

Maiatzaren 20an hil zen, Andoain, 91 urte zituela.

Bere seme-alabak: Gotzon eta Ixabel, Xabier eta Kizkitza, Joxeba, Garbiñe eta Xabier, Lourdes eta Sam; bilobak: Dorleta eta Sergio, Alex, Manex eta Maite, Axier eta Ainhoa, Julen eta Eli, Gorka; birbiloba: Laia.

Andoain, 2022ko maiatzaren 21ean



Zutik Beatriz Alesanco (Gene), Garikoitz Hurtado (Hogar Extremeño), Jesus Ibañez (Gora Kaletxiki Banda), Maider Lainez alkatea, Joxe Mari Oiartzabal zuzendaria. Mahaian eserita, Karmen Rodriguez (Urki), Belen Moreno (Hogar Extremeño presidentea), Puy Arruti (Gene presidentea), Asun Garcia (Gene) eta Joxe Ramon Berrondo (Gora Kaletxiki Banda).

Emanaldi solidarioa aurkeztu dute

Gora Kaletxiki Bandak eta Hogar Extremeño elkarteak gaixotasun neuromuskularrak jasaten dituzten pertsonen aldeko kontzertu solidarioa iragarri dute. Ekainaren 11n izango da, eguerdiko 12:30ean hasita. 80 musikari igoko dira taula gainera

Xabier Lasa ANDOAIN

Kontzertua Los Euskaros talde mitikoaren, Hernaniko Doinu Zale musika eskolako eta Ozenki Abesbatzako lau kantarien, Gora Kaletxiki Bandaren eta Urkiko kideen partaidetzarekin aberastuko da. 80 bat musikari igoko dira oholtzara, guztira.

Martxoan, kontzertuarekin lotutako lehen agerraldiaren ostean, bigarren aurkezpena

egin zuten asteartean Hogar Extremeño elkartearen. Bertan, Gora Kaletxiki ordezkariek, Hogar Extremeño presidentea Belen Morenok eta GENE elkarte presidentea den Puy Arrutik eta kide den Asun Garciak kontzertuari buruzko hainbat xehetasun jakinarazi zituzten. Garciak aitortu zuen bi arrazoiengatik zegoela pozik eta harro; batetik, hainbat kultur gile GENE elkar-

tearen alde batu direlako, eta bestetik, maila pertsonalagoan, bere izena daraman abestia sortu duelako Oiartzabalek, eta Basteroko kontzertuan estreinatuko delako. Puy Arrutik, berriz, kontzertuaren bultzatzaileei eta Andoingo herriari eskerrak eman zizkien "gure errealitatea ezagutarazten eta ikusgarri egiten laguntzeagatik".

Hainbat abesti estreinatuko dira

Kontzertua Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduko du, eta errepertorio anitzak osatuko du. Azken urtetan musikariak berak sortutako *Ama*, *Asun Garcia* eta *Beti Hor Zaude* abestiak estreinatuko dituzte. Mikaela Etxeberria, Loli Barrizas, Amaia Santana eta Irati Jauregi abeslariak interpretatuko dituzte kantu berri horiek.

Hogar Extremeño elkarteak eta Extremadurako kantutegiak bere tokia hartuko dute kontzertuan; izan ere, lurralde hartan errotuta dauden *El emigrante*, *El candil* eta beste zenbait doinuekin Sustraiak han eta hemen izenburuko suite bat sortu du Oiartzabalek.

Bestalde, XX. mendeko 70 eta 80ko hamarkadetan dantzaldietan famatuak egin zen Euskaros euskal taldeak ere ziurtatu du partaidetza Basteroko kontzer-

tu solidarioan. Talde hartako lau kide igoko dira oholtzara: Rafa Erentxun (teklatura), Eugenio Perez de Lazarraga (bateria), Roberto Alvarez (gitarra eta ahotsa) eta Joxe Mari Oiartzabal (gitarra, tronpeta eta ahotsa).

Euskaros taldea aitzindaria izan zen plazetako dantzaldietan euskaraz kantatzeko orduan. 1972an, lehen postua eskuratu zuen euskal musikagintzan egiten zen zerrendan, *Dana polita udaran* kantarekin. Taldeak bere sorreraren 50. urteurrena ospatzen du aurten.

GENE elkarte

Martxoko agerraldian, GENEko kide den Andoni Goitiak elkarrean zein jende mota elkartzen den zehaztu zuen, "Eritasun genetikoak, progresiboak eta degeneratiboak jasaten dituzten gipuzkoarren topagunea da GENE elkarte. Bere kideek genetan sortzen den mutazio batek eragindako gaixotasuna daukagu. Normalki, hereditarioak izaten dira mutazio horiek, eta baita ere, progresiboak, pixkanaka gehiagora joaten direlako, eta degeneratiboak, gorputzeko falkultateak galtzen doazelako".

Datu jakigarriak:

- Parte-hartzaileak: Hogar Extremeño, Gora Kaletxiki Banda, Urki, Euskaros taldea. Doinu Zale musika eskolako eta Ozenki Abesbatzako kantariak. Laguntzaileak: Udala.
- Sarrerak: 3 euro. Aurrez Delgado, Ernaitza eta Stop liburutendetan. Egunean bertan Basteron.
- 0 Lerroa: Kutxa: ES27 2095 5009 70 10 6153 0204. Caixa: ES49 2100 6491 16 22 0003 3075.

Ekainean zabalduko dute Urnietako kiroldegia, berrituta

Bazkide izateko deialdia zabaldu du Urnietako Udalak. Urnieta.eus gunearen bitartez telematikoki egin daiteke

Erredakzioa URNIETA

Kuota orokorra 168 eurokoa izango da, urteko eta pertsonako. Abonu familiarraren kasuan, urte osoko kuota 254 euro da. Dena den, urte amaierara arte bazkide egiteko aukera ere dago.

Tarfia bereziak

21 urtetik beherakoek, 65etik gorakoek, gazte eta ikasle txartela dutenek, langabetuek eta pentsiodunek 105 euro ordainduko dute, beti ere beharrezko den dokumentazioa aurkeztuz.

Igerilekuko abonua

Igerilekuko udako abonuari dagokionez, banakako bonuak 53,83 euro balioko du, eta familiarrak, aldiz, 107,65 euro. Kasu honetan ere, badira kuota bereziak: 21 urtetik beherakoek esaterako, 10 sarrerako bonua erosteko aukera izango dute, 36,58 euroan; eta 21 urtetik gorakoek, 57,88 euroan.

Udalekuko edo talde berezi bateko kide diren herritarrek aldiz, 4,01 euro ordaindu behar dituzte, eguneko.



Udal Kiroldegia. UDALA